

## **'Ipuin ordua' izango da ostegunean Astigarragan**

**Lur Korta ipuin kontalaria kultur etxeko liburutegian arituko da  
arratsaldean**

Ostegunean Lur Korta ipuin kontalaria Astigarragako kultur etxeko liburutegian izango da arratsaldean, Ipuin ordua ekimenaren baita. Arratsaldean, bi txandatan banaturik, hiru eta bost urte arteko haurrentzat irakurriko du 17.45ean eta sei eta bederatzi urte bitartekoentzat 18.15ean. Oraingoan, gainera, Kezkamuxela liburuarekin arituko da. Anthony Browne idazle britainiarraren obra da hau, Silly Billy lanaren bertsio itzulia, hain zuzen ere.

Beldurraren eta kezkaren inguruan mintzatzen da nagusiki Browneren lan hau. Ibai da kontakizun honetako pertsonaia nagusia. Txikia beti dago kezkaturik. Gauzarik txikieneke, kapeluek eta zapatek, besteak beste, ere kezka-tzen dute, baita hodeiek, euriak eta txori erraldoiek ere.

Ibai bezalaxe, haren amona ere, neskato bat besterik ez zela, kezkaturik bizi zen. Beti zuen buruan aztoratzen zuen zer edo zer. Eta, hori dela eta eskaini behar dio laguntza Ibairi, bere biloba txikiari. >a.s.